

...eta

Kitto!

932 zkia.
2015-V-29



Euskeraren Transmisioa HIZPIDE mintegia



KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak

IZEN EMATEA

Maiatzaren 25etik - Ekainaren 5era

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Robota diseinatzen dute

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa

Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

Mekatronika Industrialia

Robotaren muntaiaz eta mantentzeaz arduratzen dira

Sareko Informatika Sistemen Administrazioa


Robotaren hari gabeko komunikazioaz, ordenagailu muntaiaz eta sistema eragileen instalazioaz arduratzen dira

Automatizazioa eta Robotika Industrialia

Robotari autonomia ematen dioten elementuak instalatu eta programatzen dituzte

Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoz eta energia hornitzeaz arduratzen dira



Jakinarazi etorriko zarela! 943 71 21 91

UDAKO Euskara Ikastaroak UDAL EUSKALTEGIAN

16 urtetik gorakoentzat

- 1., 2. eta 3. maila (EGA)
prestatzeko ikastaroak

100 ORDU

- **Ekainaren 29tik uztailaren 24ra**

(egunecan 4 ordu, goizez)

- **Irailaren 9tik 22ra**

(egunecan 2 ordu, arratsaldez)

TARIFA BEREZIAK ditugu *Etorri eta galdetu!*

MATRIKULATZEKO EPEA
Ekainaren 1etik 19ra

Euskaraz blai

Matrikula-epea **ZABALIK**

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK
14/15
Bista Eder 10 -PORTA-

UDAL EUSKALTEGIAK • UDAL EUSKALTEGIAK • UDAL EUSKALTEGIAK • UDAL EUSKALTEGIAK • UDAL EUSKALTEGIAK • UDAL EUSKALTEGIAK • UDAL EUSKALTEGIAK • UDAL EUSKALTEGIAK • UDAL EUSKALTEGIAK • UDAL EUSKALTEGIAK



euskaltegia@eibar.eus
Telefonoa: 943 700 912
Faxa: 943 820 089

ASTEAN ESANAK

"Gizartea herritarren topagune bat da, espazio administratiboki mugatua. Herria, aldiz, autoadskripzio bat da: giza talde batek, hau da herritarrek, euren buruari ematen dioten definizioa. Uste dut badagoela euskal gizarte bat non herritartasun ezberdinak bizi diren"

(IBAI IZTUETA,
IDAZLEA)

"MIR azterketan kalifikazio onenak atera dituzten hamar lagunen artean bi euskal herritar daude, euskaldunak eta euskarazko adarreko bi ikasle; hori Madrilek administratutako lurralde guztietako hamar ikasle onenen artean. Ez du horrek argi uzten posible dela mediku ona eta euskalduna izatea?"

(XABIER ITURRASPE,
MEDIKUNTZAN UZENTZITATUA)

"Orain argazki kamera digitalekin denbora harrapatzen duen dokumentazio itzela dago, baina hori etorkizuneko argazkien arazoa da. Inoiz baino argazki gehiago daude, baina ehun urte barru non topatuko dituz argazki horiek? Euskarri digitalean hamar urtean desagertu daitezke"

(DAVID HORNBACK,
ARGAZKILARIA)

"Jimmy Hendrix, Lou Reed edo Syd Barrett bezalako musikariak entzuten, drogaren ahalmen sortzailearen ilusia helarazten ziitzaigun. Kontzientzia eraldatzen duten gaiek arrasto sakona laga digute. Onerako zein txarrerako."

(TXUMA MURUGARREN,
MUSIKARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KOKOLE.- Txokolate, umeen berbetan. "Hartuko dozu kokole maitiorrek?"

KOKOLO.- Mozolo, tentel, lelo. "Kokolua da holan mozolua izetia moruan".

KOKOMARRU.- Mamua, umeak izutzen dituen pertsonaia. "Ixildu zaitte, Kokomarruak eruango zaittu ba bestela!"

eskutitzak

ESKERRIK ASKO GUZTIOI ETA AUPA EIBAR!!!

Abentura hau amaitu da!!! Eibar K.E. osatzen dugunok, ibilbide hau luzatzeko ahaleginak egin arren, azkenean ez dugu lortu. Oso zaila zen helburua lortzea. Hala ere, kanpotik inork ez digu lagundu eta bigarren itzulian guk, geure kabuz ere ezin izan dugu erdietsi.

Gure Gaizkak behin baino gehiagotan esan duen bezala, "Hitzak haizeak eramaten ditu", eta ezin genuen kanpoko laguntzarik espero. Azkenean Eibar K.E.ren alde hainbeste bider entzun ditugun goraiapamenak ez dute inongo ondorio onik izan. Eurentzako kalte!!! Negozioz, adiskidekeriaz eta ustelkeriaz betetako futbol inposatu da eta, hainbeste traba jarri ondoren, lehenengo mailan espero ez zuten talde bat azkenean kanporatzea lortu dute.

Baina berdin dio!!! Edozein mailatan egonda ere, eibarzaleek gure taldea harrotasun haundiz defendatzen jarraituko dugu. Eibarzaletasuna inork lapurtu ezin digun sentimendua da, gutxi batzuk bakarrik sentitzea aukera daukagu eta Eskozia La Bravatik zaletasun hori desagertu ez dadin lanean jarraituko dugu. Entrenatzaile eta jokalar berriak etorriko dira eta, eibarzaleak izaten lortzen den neurrian, emaitza hobeak ikusiko ditugu. Gure koloreak eta kamiseta defendatzen, eta guk maite ditugun bezala maitatzen, ikasi beharko dute. Agian

aurreko taldean sartu diren azken jokalarien artean batzuk ez dute jakin sentimendu hori barnatzen. Eurentzat okerrago!!!

Amaitzeko, alde batetik, Eibar K.E.ko peñei eta, orokorrean, zaletuei eskerrak eman nahi dizkiegu lpurua kolorez eta animazioz betetako lehen mailako futbol zelaia bihurtzeagatik. Baita Eibarko ostalaritzari, eurek antolatutako partidu garrantzitsuen aurreko ekintzen bidez gure herria jai erraldoi bihurtzeagatik. Eta, batez ere, eskertu Gaizka Garitanori inork irudikatzen ez genuena eman digulako. Gaizka: agian batzuk orain arte ez dute profesionalki zure lana merezi duzun bezala baloratu; baina, gure aldetik, zure lanagatik bakarrik ez, zure izakeragatik ere hunkitu gaituzulako, zurekin zorretan gelditu garela ziur egon. Zuk eman diguzun guztiaren zati bat, nahiz eta txikia izan, bueltatzen saiatuko gara.

Abentura hau amaitu den arren, gure ametsak aurrera jarraitzen du. Eibarzale izatea ametsa da eta ez gaitu inork amets horretatik esnatuko. Gure umeek eta gazteek eibarzaletasuna defendatzeak merezi duela pentsatzen jarraitu dezatela. Abentura honek helburu hori lortzeko behintzat balio izan badu, benetan merezi izan duelako izan da.

Datorren denboraldira arte!!! **Aupa Eibar!!!**

ESKOZIA LA BRAVA



Euskara Elkarte

ARGITARRAZTARILEA: ...eta kito! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen €-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /

publizitatea@etakitto.eus **Elkartaren €-MAILak:** elkarte@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Sheila Lopez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDUADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Sozialistak nagusi, 10 ziñegotzirekin

Miguel de los Toyos alkatiak garaipen argixa lortu eban domekako hauteskundietan. Oin dala lau urte baiño 600 boto gehiago jaso dittu PSE-EE alderdixak asteburuan egindako udal hauteskundietan eta, horrekin batera, ziñegotzi bat gehiago eskuratu dabe sozialistak. Erroldan 663 botoemotaille gitxiago egon dirala kontuan hartuta, datu horrek are garrantzi haundixagua daka. Eta porzentajietan, lehen zeken %35etik oingoko %41ra pasau dira sozialistak. EHBilduk bigarren indarra izaten segiduko dau, azken hauteskunde hōnetan eta, 463 boto galtziaren eragiñez ziñegotzi bat gitxiago eukiko dabe hurrengo legegintzaldixan; beraz, boto guztien %24a jaso dittuan ezker abertzaliak bost ordezkari eukiko dittu. Eta beste bost ziñegotzi eukiko dittu EAJ-PNVk (zekan kopuruari eutsi detse),

baiña jeltzaliak 2011n baiño 172 boto gehiago jaso dittue (%21). Lehen aldiz hauteskundietara presentau dan Eibar Irabazik 904 boto eskuratu dittu, boto guztien %7, eta horrerri esker ordezkari bat eukiko dau. Ordezkaritza barik geldittu dira oinguan PP-kuak, 8 botorengaittik 21. ziñegotzixa eskuetatik ihes egin eta PSE-



EEren esku geratu dalako. Bestalde, Eibarko Batzar Nagusietarako emaitzak hōnetek izan dira: PSE-EE (4.361), EAJ-PNV (3.426), EH-Bildu



Domekan pozik ospatu zeben sozialistak eguneko emaitzak. Bederatzi ziñegotzi izatetik hamarrera pasau dira oinguan. SILBIA

(3.061), Podemos (1.211), PP (694) eta Irabazi (367). Astelehengan, kiosko eta beste den da batzuetan egunkariarekin batera papelian banatu zan

ale berezixan emon genduan hauteskundien barri. Euren dendetan alia banatzen ibilli ziran guztieri zabalkundia egitten emondako laguntasuna esker-tu nahi detse ...eta kitto!-tik. Papelezko alia ezeze, aliaren PDF-ia interneten, etakitto.eus/hauteskundeak.html helbidian eskuragarri ipiñi dogu.



“Marcan Huella”-ren aldeko jaixa

Debabarreneko “Marcan Huella” txakurren aldeko alkatiak jaialdixa egingo dau gaur, 20.00etatik aurrera Ermuko Antzokian. Ekitaldiari esker lortzen daben dirua kale gorrixan lagatzen dittuen txakurren alde biharrian segitzeko erabiliko dabela azaldu dabe antolatzailliak eta jaialdixan musika eta dantzarekin gozatzeko aukeria egongo da, flamenkua, klasikua, euskal dantzak eta rock-a tar-

tian. Gaiñera, moda desfilia egingo dabe alkatiak berak saltzen dittuan erropak erakusteko. Horrekin batera, Arrateko UCAS erreskate-taldiak bere biharren barri emongo dau. Marcan Huella alkatiak oiñ arte egindakuekin osatu daben ikus-entzunezkua eskinduko dau. Sarre-rak bixar bertan erosi leikez, 6 eurotan (aldez aurretik, Arkupe eta Lau Bide tabernetan eta Maria Ospitxalen).

ELAko milla ordezkari

Aurreko astian, barixakuan ELA sindikatuko milla bat ordezkari alkartu ziran Eibarren, Astelena frontoian egindako batzarraren harira. Goizian hasi eta eguardira bittartian, frontoiak Industria eta Eraikuntza federaziñoko delegatuen batzarra hartu eban eta ekitaldixan, bestiak beste, Adolfo Muñoz “Txiki” idazkari nagusixak jardun eban berbetan. Ekitaldixa amaituta, herriko kalietan manifestaziñua egin eta Untzagan agurtu eben jardunaldixa.



Azken aldiko manifestaziño haundixena egin zeben frontoitik urtenda. SILBIA HERNANDEZ

autuan

TXOSNAK

Aurtengo sanjuanetan txosnia ipintzeko asmua dakenak Pegoran eskaeria presentau biharko dabe. Horretarako epia zabalik dago eta eskaerak jasotzeko azken eguna datorren asteko barixakua, ekaiñaren 5a izango da. Informaziño gehixagorako eibar.eus helbidian begiratu.



1965IAN JAIXOTAKUAK

Aurten 50 urte bete edo beteko dittuenak batzeko bazkarixa antolatzen hasitta dagoz. Jaixa urriak 31n egingo da (egitarauaren gaiñeko informaziñua aurrerago emongo dabe) eta juan nahi dabenak 85 euro sartu biharko dittu Bankoako ES41 0138 0005 11 0010705819 kontu zenbakixan, izena eta abizen bi garbi azalduta.



Polio alkartiaren presentaziñua

Eguazten arratsaldian presentau eben Untzagako jubilaue etxian EPE Euskadiko Polio Elkarte. Polioaren eta Polio Osteko Sindromiaren inguruan biharra egitten daben alkartiak Untzagako jubiletxian ber-

tan daka egoitza eta zuzendarixa Mario Feijoo da. Alkartiari buruzko informaziño gehixago nahi dabenak interneten, polioeuskadi.blogspot.com.es helbidian topauko dau.

Feminismuari buruzko tertulixa



Bixar 10.00etatik 14.00xetara "Feminismuaren erronka: sexualitate iraultza" izenburuko kafe-tertulixa egingo dabe Andretxean (Zezenbide, 9 behean). Nahi daben jende guztiarendako zabalik egingo daben saiua Josebe Iturriozek gidatuko dau eta, bestiak beste, sexualidadiarenguruko diskurso barriak eta transexualidadea erronka politiko moduan lantzeko asmua dakala aurreratu dabe antolatzailliak. Informaziño gehixago andretxea.kzcomunidades.net helbidian.



bista eder
clinica dental - horts klinika

Asko dira
gure horts-kliniketara
etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT
20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko arreta jaso dezazun

www.innovadentalclinicas.com



bista eder Bista Eder, 19
clinica dental - horts klinika 20600 Eibar Tel: 943 70 00 82



innova dental



Arpeitia
clinica dental - horts klinika

Jose de Artetxe, 5
20730 Azpeitia Tel: 943 02 59 55

Herriko tailarren ibilbidia

asteko
212.553
datua

erabiltzaille euki zittuan
iaz liburutegiak, bisitak,
mailleuak eta
webgune/blogetako
konsultak batuta. 2.623
lagunek jardueretan parte
hartu eban eta irakorketa
taldietarako 800 mailleu
gehixago egin ziran.

Armagintzaren Museoa kalera etarako dabe, "Museoa Kalean" ekimenaren barruan garatu daben proiektuaren bittartez. Izan be, gure herriko industria-patrimonixua ezagutzera emoteko asmuarekin, taillarrak adierazgarrixenak batzen dittuan ibilbidia sortu dabe, hamar informaziño-punturekin eta puntu hórretako seiñaliak margotzen ibilli dira: atzo Boj, Heinza, BH, Pampo eta Aurerra taillarren seiñaliak margotu zittuen eta gaur, barriz, gaiñontzeukuak pintatzen amaittuko dabe: Alfa mikrofusiñua, Egogain (lehenagoko Alfa egon zan tokixa), Armerixa Eskolia, El Casco eta Armagintzaren Museua bera (AYA izandakua). Trafiko seiñaliekin ez nahasteko, margotutako seiñaliak laranja koloria eukiko dabe eta diseiñua egittian enpresa bakoxtaren tipografixia eta logotipua euki dittue kontuan. Horrekin batera, informaziño



gehixago nahi dabenedako QR kodiguak ipiñi dittue, hórretxen bittartez Armagintzaren Museuaren webgunera zuzenian sartu eta han jasota dakena irakortzeko.

Bestalde, kaleko modan erreferentia izatia nahi daben WAM markia sortu dabe Anemona Studioa, Sortumedia S.L. eta Li&Co enpresak alkarlanian eta, ezagutzera emoteko, datorren asteko eguenian presentaziñua egingo dabe, 19.00etan Museuaren harreralekuan (sarrera duan) eta ekaiñaren 6tik 12ra bittartian, barriz, erakusketia egingo da ikusgai.



30 enpresa Debegesako Topaketan

Debabarreneko eta Debagoieneko Industria-enpresen I. Topaketiak 30 enpresa batu zittuan Debegesan aurreko astian. Debagoieneko Mankomunidiak eta Debegesak alkarlanean antolatutako topaketiak enpresen arteko lankidetzaz erraztia eta negozio aukera berrak sustatzia zekan helburutzat eta jardunaldixaren baitan enpresa industrialen erronka nagusiñeri buruzko hausnarketia egin eban eta, bestiak beste Aitor Ruiz, ACICAE-Automoziño Klusterreko Ezagutzaren Kudeaketarako zuzendariak hartu eban parte. Jardunaldixa Debegesak bultzatzen daben 'Bai Industriari!' egitasmuaren baitan antolatu eban.



EMGI-ko erosketa-bonoen irabazliak

Eibar Merkataritza Gune Irekiak bere Facebook-eko orrixa jarraitzen dabenen artian zozketia egin dau, 50 euroko erosketa-bono bi oparitzeko, eta saridunak Asier Albizu eta Alex Cabo izan dira. Saridunak aurreko asteko barixakuan jaso eban premixua, EMGI-ko buleguan. Zorionak!

Umien hasarrealdixak mintzagai

Astelehen arratsaldian umien hasarrealdixak hobeto ulertzen laguntzeko hitzaldi interesgarrixa emon eban Nerea Mendizabal psikopedagoguak ...eta kitto!-ren egoitzan, Euskara Elkarteak antolatuta. Gaixarekin interesatuta, hitzaldia entzutera juandako gurusuak pozik jaso zittuen adituaren aholku eta azalpenak.





Lau kontzertu gaur 20.00etan hasitta

Egun berezixa izango da gaurkoa, gitxittan ikusten dan horietakua: arratsaldeko 20.00etan hasitta, bata bestiaren atzetik, mota guztietako hartzaileentzat prestatutako lau kontzertu izango doguzelako. Makalarekin hasiko da emonaldixa, jarraixan Espaloianek Itoizen doiñuak ekarriko deskuz, gero Hesian-ek "Hegalak astintzeko" aukeria emongo desku eta, amaitzeko, herriko eMePe-Bo5t taldiak "ikutu ganberrua" emongo detsa goiz orduetaraño aguantatzen dabenendako. Sei orduko kontzertu potentia!



Soka-dantza protagonista Ezpalak jaialdixan

Alkarri eskuak emonda osatzen dogun soka, katia, esku-dantza da aurtengo Ezpalak jaialdixa lotuko dabena. Dantzarako oiñarrizko egitturia, mundu zabalian eta historian behin eta berriz erabili dana, eta Euskal Herrixan gure plaza eta erromerixetako dantza nagusixa izan dana oin gitxi arte. Hainbat izenekin ezagutzen dogu euskaraz eskuz esku egitten dan dantza hori: soka-dantza, esku-dantza, aureskua, zortzikua, dantza-soka, dantza-luzia, erregelak, bralea, karrika-dantza, e.a. Horietako batzuk ikusteko aukera izango dogu aurtengo Ezpalak jaialdixan. Ohi bezala, atzerriko dantzariak, Turkiakuak aurtenguan, gure eta atzerriko dantzen arteko antzekotasunak agerixan lagako deskuez, eta gizonezkuen dantzatzat saldu izan deskuena emakumiena be izan dala eta izango dala ikusi ahal izango dogu.

Aurten aldatu egn da ohiko formatua eta Eibarren zapatuan (19.00etan) izango da Iruñeko Dugunak eta Kezkak antolatutako jaialdixa. Turkiatik datorren Cinar elkartiarekin batera, Lekorne (Lapurdi), Larrea (Araba), Iruñea (Nafarroa) eta Garai (Bizkaia) herrixetakuak be izango dira.



Hamen egindakua bertoko produktuekin

"Iaz Kultuko tabernarixak prestatutako pintxuak banatu ziran moduan, aurten beste urrats bat egittia pentsau zan", diño Mandiola basarriko Olatzek. "Deporreko batzarretan formia hartzen juan zan gauzia, eta kantu-afarirako eta herri-bazkarirako okelia eta barazkixak basarritarrok ipintzeko moduan egongo giñala adostu genduan". Ez da sasoi onena horretarako, orturako goizetxo dalako oindiok: "Hamendik hillabete batera errazagua izango zan". Zapatuko azokan parte hartuko daben basarritarrakin, Eibarko plazan egoten diranak eta inguruak parte hartu dabe Debemenek sustatutako ekimenian. Zapatuko herri-afarirako menua ensalada mistuak eta gisauak osatuko dabe eta domekako herri-bazkarixa ensalada rusak eta "Gisasolan hazittako" oillaskua saltsan. Oin dala hillabete bat hasi ziran generua batzen: "Ehun bat letxuga, kipulia 80 kilo, tomatia, oin hasittako patata barrixa, arrautzak 62 dozena, okelia txahal batetik etarako dogu dana...". Gitxiñaka indartzen badoia be, azokiak promoziño gehixago bihar dala diñosku Olatzek, "jendia ez doialako San Andresetan moduan berduria-eta eroatera. Gaztaia eta ogixa saltzen dira gehixago".

Aurrekuari herriko soziedadiak produkto horrekin bai afarixa eta baita bazkarixa be prestatzen egitten daben lana gehittu bihar jako, Euskal Jai honek herritarren parte-hartzia bultzatziaren alde egitten daben ahalegiñian. Politta, benetan, detallia.



Erromerixak ez dira faltako bixar eta etzi

Bixarko kantu-afarixan aurten Domentx Uzin eta Beñat Aiertza izango dira, biboliña eta gitarrekin, taldekako kantuetan laguntzen. Ondoren, betiko lez, Jainagak eta Narbaizak girotuko dabe erromerixia. Domekan, bestalde, aspaldiko eta gaurko dantzari-herri dantza-emonaldixari erromerixiak jarraituko detsa eguardixan eta, arratsaldez hor izango dira Patxi eta Konpañia jendia animatzen eta, amaitzeko, larrain-dantza bixak.

Astelehen goizean Euskararen Transmisioa Mintegia hartu zuen Portaleak bosgarrenez. ...eta kitto! Euskara Elkarearen ekimenez, 2011. urtean antolatu zen lehenengoz hizkuntza transmisioaren inguruko mintegia eta, jardunaldiak lehen edizioan izan zuen harrera onarekin animatuta, euskera elkartekoek saio gehiago antolatzeko erabakia hartu zuten.



Euskeraren transmisioaz... bosgarrenez

Bost urte hauetan mintegia antolatu duen Ainara Labadok azaldu digunez, "mintegian lantzen den gaia ez da aldatzen, hau da, ardatza transmisioa da beti, baina ikuspegiak, esperientziak... hizlari batetik bestera aldatzen joaten dira. Edozein modutan ere, argi dago transmisioaren gaiak interer handia pizten duela, edizio guztietan parte-hartzaile kopuruari eutsi egiten diogulako. Urtero 60-80 lagun bultan ibiltzen gara eta aurten ere 72 lagun batu gara".

Mintegian parte hartzen dutenen artean orotariko perfilak daudela azaldu digu Labadok: "Udaletako euskara teknikariak, euskara elkarteetako teknikariak, hezitzaileak, irakasleak... Euskal Herri mailako mintegia denez, jendea Araba,

Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroatik etortzen da".

Aurreko edizioetan mintegiaren egitarauak egun osoa, goiza eta arratsaldea bete ditu, baina aurten formatua aldatu eta jardunaldia trinkoa izatea erabaki dute antolatzaileek: "Aurreko edizioetan, jendeak azkar bazkaldu eta, janaria oraindik eztarrian zuela etortzen zen arratsaldeko saioak entzutera. Ordurako batzuk nekatuta egoten ziren eta beste batzuk, berriz, zuzenean alde egiten zuten. Bestalde, Nafarroatik etorritakoentzat bueltarako ordua asko berandutzen zen, beste askok oso goiz esnatu behar zuten mintegira garaiz ailegatzeko... Hori ikusita, aurten interbentzio guztiak goizean pilatu ditugu eta, mintegia amaitu eta bazkaltze-

ra geratu nahi izan dugunok bazkalostean hitzaldietan entzundakoaren inguruan patxadaz berba egiteko aukera izan genuen. 30 lagun baino gehiago egon ginen elkarrekin bazkaltzen eta, gehienak urtero etortzen direnez, oso giro atsegina eta lagunartekoa sortzen da beti. Izan ere, parte-hartzaileen erdia baino gehiagok urtero errepikatzen dute".

Esperientzia ezberdinetatik ikasten

Lehen hitzaldia Pello Jauregirena izan zen eta, Lasarte-Orian egindako ikerketa bat oinarritzat hartuta, etxeko eta kaleko hizkuntzen erabilaren arteko loturak azaldu zituen. Malores Etxeberriak eta Nekane Jauregik elkarrekin jardun zuten berbetan. Gura-

so euskaldunen diskurtsoak transmisioan daukan garrantzia azaltzeko hitzaldia eman zuten. Mainer Aranberrik, bestalde, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik martxa betean dabilen Gurasoak Berbetan egitasmoari buruzkoak azaldu zituen. Miren Artetxek bertso eskoletako esperientziatik abiatutako egindako ikerketak agerian laga dituen ondoriorik garrantzitsuenak azaldu zituen. Eta azken orduko aldaketak tartean, Naroa Cuestak eman behar zuen hitzaldia bere ordeztorritako Eñaut Iraetak eman zuen. Honek "Igan-deak Jai" izeneko aisialdi programari buruzko azalpenak eman zituen.

Gaizka Garitanorena, berriz, hitzaldia baino gehiago elkarriketa izan zen. Kazetaritza



Eñaut Iraeta Geu elkarteeko teknikaria. SILBIA



Mainer Aranberri ...eta kitto!-ko teknikaria. SILBIA



Miren Artetxe Euskal Filologian lizentziatua. SILBIA

ikasketak egin dituen entrena-tzaileak ederto erantzun zituen Urtxintxa Eskolako **Jaime Altunak** egindako galderak eta, jarraian, mintegira jondakoek ere beste galdera batzuk egin zizkioten. Garitano batez ere erreferente eta prestigioak transmisioan daukaten garrantziaz aritu zen.

Pixka bat ezagutzen duenak ondo jakingo duen moduan, Garitanok euskeraren aldeko jarrera eta jokabide aktiboa izan du betidanik, "nik hala sentitzen dudalako". Baina hortik haratago, horrenbeste jendearentzat erreferentea dela jakinda, hori ama-hizkuntza-aren mesedetan erabiltzeko aukera guztiak aprobetxatzen ahalegintzen da: "Erreferenteak garenok, egiten dugunarengatik komunikabideetan asko azaltzen garenok, erantzunkizun bat dugula uste dut".

Ume eta gazteentzat erreferente izatearen garrantzia zenbaterainokoa izan daitekeen ikusteko, Garitanok berak azaldu zuen adibideari begiratu baino ez da behar: "Taldeak Bergaran entrenatzen zuenean, umeak sarritan etortzen zitzaizkigun argazki eta sinadura eske, gehienetan gazteleraz

berbetan. Baina gure artean euskeraz egiten genuela eta eurei ere euskeraz erantzuten geniola ikustean, orduan eurak ere euskeraz hasten ziren. Eta horrek kezka eragiten zidan. Edozein modutan ere, erreferenteak garenok euskeraz ari garela ikustea ona da".

Oso harrera ona

Emaitzarekin pozik daude antolatzaileak: "Parte-hartzaileen balorazio-orriak eskuan, asteleheneko mintegiari buruzko balorazioa oso ona dela esan dezakegu. Horrek asko pozten gaitu, horrelako mintegia antolatzeak behar haundia ematen digu eta: urtarrila/otsaila inguruan hizlariak zeintzuk izango ziren lotzen hasi ginen, baita Gaizka Garitano ere. Izan ere, batek baino gehiagok pentsa dezake Almerriako prentsurrekoan gertatu zenarengatik erabaki genuela gonbidatzea, baina hori kasualitatez eta etorriko zela askoz lehenagotik zegoela pasatu zen. Izan ere, Garitanoren euskerarekiko jarreraren, koheren-tziaren eta inplikazioaren berri aspalditik genuen eta, horregatik, bere euskerarekiko jarrera hori lantzea oso garrantzitsua



Malores Etxeberria eta Nekane Jauregi euskara teknikariak. SILBIA



Pello Jauregi Hezkuntza Zientzietan doktorea. SILBIA



Gaizka Garitano Jaime Altunaren galderei erantzuten. SILBIA

dela pentsatzen dugulako eskatu genion parte hartzea".


Mintegia antolatzea posible egiten duten guztiei eskerrak eman nahi dizkieta: "Asteetako lana dago atzean eta egunean bertan Udaleko Euskara Zerbitzuko hainbat langile eta

...eta kitto!ko lantalde ia osoa egoten gara Portalean eta hori ere eskertzekoa da. Eta, jakina, Eibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere izaten dugu, eskerrik asko denei".

Iñaki Galparsoro Garcia

2. Urteurrena
(2013-VI-5)

Beti gure bihotzean
Familiaren partez




Urbat waterpolo taldea Euskal Herriko 1. mailara igo da

Hurrengo denboraldian Euskal Herriko waterpolo onena ikusteko aukera egongo da Orbea kiroldegian, Eibarko taldeak Gasteizen Lautadari 6-7 irabazita maila igotzea lortu zuelako domekan. Hainbat urtetan ahalegindu eta gero, oraingoan eibartarrek lortu zuten helburua, ez sufritu barik. Atsedenaldira 3na berdinduta erretiratu ziren taldeak eta ondorengo gorabeherak urduritasuna ekarri zuten piszinarra: Urbatekoak 3-5 aurreratu ziren, gero gasteiztarrek buelta eman zioten markagailuari (6-5) eta, azken laurdean, Basterrikak penaltiz eta Igor Sanzek lortutako golekin ei-



bartarrak aurretik jarri ziren. Bestalde, ate irekien jardunaldia antolatu du Urbatek 2005, 2006 eta 2007 urteetan jaiotakoentzat: astelehen, eguen eta barixakuetan Orbean, 17.00etatik 18.00etara.



Eibarko Itzuliaren 19. edizioa egingo da ekainaren 6an

Urte birik behin egiten den Eibarko Itzuliak gure herria inguruzten duten mendiekin hitzordua izango du ekainaren 6an. Eibarko Klub Deportivoak antolatutako mendi ibilaldi hori goizeko 07.00etan hasiko da Depor aurretik eta, 31 kilometro eta erditan, 2.000 metroko desnibela gaindituko dute. Antolatzaileen kalkuluen arabera, "itzulia zazpi bat ordutan egin daiteke", honako ibilbidearekin: Depor (120 m), Egoarbitza (730), Karabieta (561), Azkonabieta (724), Galdaramiño (669), Azurtza (560), Topinburu (590), Illordo (539), Azitain (100), Arrate (540), Azketa (709),

Akondia (749), Garagoitxi (725), Kalamua (768), Ixua (546), Urko (793) eta Elorreta (470).

38 mendizale Estibalizen

Aurreko zapatuan "Ardo eta arrain bidearen" hirugarren etapa egin zuten Deporrek mendizaleek. 38 lagun izan ziren Albaina eta Estibaliz lotzen duen 23 kilometroko ibilbidea egiten. "5-6 bat ordutan egin genuen, eguraldi onarekin, eta bazkaldu ere ondo egin genuen fraileek gorde ziguten tokian; hori bai, bakoitzak bere bazkaria eraman zuen, eh!".

"Kirolet Sariak" Ermura joan zen

Aurreko zapatu goizean Unben jokotutako partiduan, Durangok eta Sagarrak bana egin zuten eta txapela penalti puntutik erabaki zen. Hor Ermukoak gehiago izan ziren eta, kale egin barik, 5-4 nagusitu zitzaizen Eibarko torneoaren irabazleei. Bihar, bestalde, foball-zaletuaren Kopako finalerdiak jokatu dira: Txokok eta Oishi-Tankemasek indarrak neurtuko dituzte 09.00etatik aurrera, eta Ipur Sagardotegiak eta Esmorgak 10.30etan. Hortik irtengo dira aurtengo finalistak.



Hiru domina Kalamuarentzat

Maren Martinek urrezkoa eskuratu zuen eta Gaizka Merinok eta Markel Simonek zilarrezkoa Elgoibarko kiroldegian aurreko domekan jokotutako alebin mailako Gipuzkoako judo txapelketan. Datorren domekan, bestalde, probintziako taldekako txapelketa jokatu da, oraingoan Hernaniko kiroldegian; hor Kalamuak bi talde aurkeztuko ditu.



Pampo Memorialaren bosgarren edizioa

Aurreko zapatuan Felix Ormaetxea "Pampo" gogoratzeko Memorialaren bosgarren edizioa ospatu zuten Aixolako urtegiaren. Goizean hasitako ekitaldiak arratsaldera arte iraun zuen. 08.00etan maratoia hasi zen eta handik bi ordua erdi-maratoia; bitartean, antxintxiketaren animatu ez zirenak itzuli batzuk egin zituzten oinez. Guztiak ere bikain amaitu zuten, Ipur sagardotegian 15.00etan egindako bazkarian.

Igerilariak geratu barik

Urbateko igerilari gazteenek hainbat txapelketatan hartu zuten parte aurreko asteburuan. Zapatuan Lezarpin Gipuzkoako alebinen arteko igeriketa osoa txapelketara joan ziren sei igerilari eta, egun berean, Ander Romarate Altzan izan zen duen kalitatea erakusten. Domekan izandako hitzorduan, bestalde, bigarren urteko alebinek eta infantilek jardun zuten Gipuzkoako eskolarteko jokoetan; Jon Osa, Roke Etxeberria, Inge Erkiaga eta June Gomezek Euskal Herriko eskolarteko jokoetarako sailkatzea lortu zuten.



Katu Kalek igoera lortu zuen azken jardunaldian

STL Azkune liderrari 35-54 irabazita eta bestelako emaitzek lagunduta, Eibarko saskibaloitza 2. mailara igo du. Donostian gutxienez 14 puntu-rengatik irabazi behar zuen Iñaki Sanchezek zuzendutako taldeak; baina, ez hori bakarrik, denboraldiko aurreko onena eskainita, garaipen garbia lortu baitzuten, 19 puntuko aldearekin eta liderra 35 puntutan lagata. Datorren denboraldiari begira, entrenamenduetako ordutegi berari eutsiko diote Katu Kalekoek eta saskibaloian jokatzeko interesa duten herriko gazteei deitzen diete bertan azaltzeko.



Arakistain, Katu Kaleko jokalaria.

Bikeibar mendi bizikleta lagunak Bilbon

Untzagan zapatuero elkartzen diren bizikleta zaleek hilean behin inguruetako bidezidor eta mendi tontorretatik urrundu eta beste lurralde edo paraje berriak ezagutzera jotzen dute. Aurreko zapatuan, Bilbotik abiatuta, Viverora igo zuten eta baita Ganguren mendi tontorrera iritsi; Artxanda gainera Arangoitira jo zuten Bilbora jaisteko. Datorren hilean Gasteizko mendietara egingo dute irteera. Argazkian, Bikeibarko bizikleta zaleak Guggenheim museoaren aurrean.





Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

Informazioa 676 534 106

100 metroko TATAMIA

EGOKIA
yoga, pilates,
arte martzialak
eta abarrerako

alokatzen da
orduka
Elgoibarren

Glasgow-eko Celtic Eibar FT-ren 75. urteurrenaren partiduan

Uztailaren 18an Ipuruan jokatu den lagunarteko partiduan kontuan hartu dituzte Eskozia la Brava eibarzaleen peña handienaren lotura emozionalak eta Glasgow-eko Celtic-ek jokatu du Eibarren aurka Eibar FT-ren 75. Urteurrenaren oroigarritzko neurketan. Zuri-berde taldeak (orain dela denboraldi bi Eibarrek eurena zuten bigarren ekipazioa) Eskoziako Premiership-a irabazi berri du eta, zuzendaritzaren

arabera, "zaleek taldeari erakutsitako laguntasunak merezi duen oparitzat jo dezakegu". Celtic-en jarraitzaileak -hoops deitzen diete- eredugarritzat dituzte mundu guztian eta FIFAk eta UEFAk saritu dituzte behin baino gehiagotan. Eibarrek 25 urte egiterakoan Bordelako Girondins etorri zen Ipurua eta, orain dela 25 urte, taldearen 50. urteurrenean, Amsterdam-go Ajax izan genuen bisitari.



Eibar FT-ak maila galdu zuen

Ligako azken jardunaldian, bestalde, Eibar FT-ak ezin izan zion mailari eutsi, nahiz eta Cordobari erraz gailendu (3-0). Deporrekina eta Granadarekin berdinduta amaitu zuten liga Gari-

tanoren mutilek, baina euren arteko averageak zigortu egin zuten talde gorri-urdina. Etapa bat amaitutzat jo dute bai entrenatzaileak eta baita hainbat jokalarik eta taldea guztiz bertutuko da denboraldi berrirako.



Ipuruako jubenil A mailako boskotea: Maialen Oregi, Irene Perez, Nerea Deza, Lorea Armendariz eta Arrate Baroja.

Nota ona lortu zuten Ipuruako gimnastek Gipuzkoako txapelketan

Aurreko zapatuan Ibarren jokatuako amateur eta eskola mailetako Gipuzkoako txapelketan, Ipuruako jubenil A mailako taldea azpitxapeladun geratu zen bost pare mazakin egindako ariketaren ondoren. Nerea Dezak, Irene Perezek, Maialen Oregik, Lorea Armendarizek eta Arrate Barojak osatutako boskotearen zilarra gainditu zuten Irati Yarzak senior+ mailan, aroarekin eta zintarekin urrezkoa eskuratuta eta, bide batez, probintziako txapela jantzita. Nahia Bilbao bigarren sailkatu zen senior A mailan, zintarekin urrezkoa eta aroarekin brontzezkoa lortu ondoren. Lorea Armendariz jubenil A mailan azpitxapeladun geratu zen moduan, Irene Perezek txapela jantzi zuten jubenil B-n. Horiek guztiek datozen asteburu bietan jokatu diren Euskadiko txapelketan hartuko dute parte.

Asola-Berri aurreko postuetan Gipuzkoako Hiru Txirloan

Asola-Berrin egindako jaurtialdiaren ondoren, Eibarko bolatokiko ordezkariak hainbat sailkapeneta-ko buru-buruan daude. Horrela,

Ibai Diez onena da sailkapen orokorrean San Migueleko Unai Loiolarekin berdinduta, eta euren gandik bi txirlora daude Sergio eta Ganix Rodriguez eibartarrak. Taldeka Asola-Berri A da lehena, San Miguel A bigarrenarekiko hiru txirloko aldearekin. Bikoteka ere eibartarrak dira nagusi: Diezek eta Ganixek 10 txirloko aldea ateratzen diete beste bi taldekideei, Sergio eta Juan Luis Rodriguezi. Aurrekoa gutxi balitz, nagusietan Bittor Ugarteburu da onena, emakumezkoetan Asola-Berriko Laura Ribasek eta Sonia Gomezek borroka polita dute euren artean (Ribas doa aurretik txirlo baten aldearekin) eta jubeniletan Egoitz Blanco da lehena.



Haritza Gipuzkoako Kopa txapeladun eskubaloian

Eibarko Haritza Eibar Eskubaloitako bigarren senior taldeak lurraldeko I. mailako Kopa lortu du norgehiagokan baten faltan zapatuan Pulpori Zumaian 24-25 irabazi ondoren. Ligako bigarren itzuli bikaina egiteaz gain, oraingoan Kopako partidu guztiak irabazi dituzte eta azken lehia asteburuan jokatu dute Ipuruan Zautokatilluren aurka. Bestalde, IK4-Tekniker taldeko kadete mutilek (argazkian) Leonen Espainiako txapelketako sektorea jokatu zuten eta partidurik irabazi gabe bueltatu ziren.

etxe apainketa



gehigarria

Bezeroari entzun egin behar zaio

B

ezeroak beti jakiten du zer nahi duen, baina batzutan ez du ondo adierazten. Interioristaren lana honakoa da:

- Bezeroaren beharrak ulertu.
- Bezeroari aukera berriak ezagutzera eman.
- Proiektua emaitza interesgarrienera bideratu.

Interiorista ezin da bezeroen interesen aurka joan. Kontua ez da polita izatea bakarrik, proiektuak egokia izan behar du.

Baina zaila da interioristak nahi duena eta bezeroak nahi duenaren arteko oreka aurkitzea. Bakoitzak estetika-maila desberdina dauka. Oso garrantzitsua da bezeroaren programa ondo aztertzea, eta antzematen diren akatsak bezeroari ikustaraztea. Baina proiektua beti bezeroak nahi duen bezala egin beharra dago.

Interiorista baten ikuspegitik, bezero perfektuak gauzak garbi izan behar ditu, bere beharrak zehaztasunez azaldu behar ditu eta proiektuaren garapenaren jarraipena egin behar du, baina beti ikuspegi irekiarekin.

Denborarekin, bezero-mota aldatuz



joan dela diote interioristek. Gaur egungo bezeroek ez ditu bakarrik diseinu politak bilatzen; zerbait ingeniosoa eta gainera, ingurugiroa errespetatzen duena bilatzen du. Beraz, proiektua hastean, bezeroari arretaz entzun egin behar zaio, alde zuretik izan daitezkeen

ideiak aldera betera lagata. Ez dago zailtzarrik interioristak bezeroarekin erabat inplikatzeko direla, emaitzarik onena bilatu nahian. Azken finean, proiektuaren azken emaitza bikaina baldin bada, horixe da profesional horrek izango duen aurkezpen-txartel onena.



BAT EGIN ZURE AUZOKIDEEKIN ETA LORTU EGIZU ZURE SUKALDEA PREZIORIK ONENEAN FRAN URKIDI-N

INFORMAZIO GEHIAGORAKO DEITU **617 976 237**

EIBAR_{ko} IPARRAGIRRE 10-12_{rako} eskaintza baliagarria

*hauek benetako ereduak dira, etxe horietarako bereziki diseinatutakoak

SUKALDE GUZTIZ EKIPATUA 7.260 €TAN, GUZTIA BARNE*

- + Sukalde altzariak estratifikatuan
- + Silestone gainaldea
- + Balay etxetresna elektrikoak: plaka bitrozeramikoa, labea, mikrouhinak, combi hozkailua, garbigailua, ontzi-garbigailua, ke-kanpaia.

*BEZ-a, Garraioa eta Muntaija BARNE ALDATZEKO AUKERA BAI BANAKETAN BAI AKABERAN



ARKITEKTURA & VINTAGE
proiektuak
ERREFORMAK
dekorazioa
diseinua

atelier11 * www.atelier-11.es
Julian Etxeberria 11 * tlf 688 681 604



Arragueta, 7 Tel. 943 127 196
attrezzodecoracion@gmail.com

attrezzo

PROIEKTUAK BERRIKUNTZAK DEKORAZIOA



E P O C A

ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK
ALTZARIAK - DEKORAZIOA

"Zuk nahi duzun
etxea egiten
lagunduko dizugu"

San Juan, 5 EIBAR
Tel.: 943 700 216

Madalenoste, 7 DURANGO
Tel.: 946 472 012

www.epocasukaldeak.com



Argiztapen-tendentziak

L

anpara eta argi-emaleen artean modelo retroak nagusitzen ari dira. Hau argi ikus daiteke gori edo inkandeszente forma daukaten LED lanparekin (gehienetan, zintzilikatuta). Estilo klasikoetan oinarritutako lanparak ere nagusitzen ari dira. Vintage kutsua izan arren, estilo biak oso egokiak dira gaur egungo espazioetan.

Lanparen tamainari erreparatzen baldin badiogu, azkenaldi honetan joera guztiz aldatu da. Orain dela hilabete batzuk lanpara minimalistak ziren nagusi; azkenaldian, berriz, lanpara handiek garrantzi handia hartu dute. Horretaz gain, diseinu deigarriak nagusitu dira.

Zer gertatzen da materialekin? Zalan-tzarik gabe, azkenengo tendentzia beira da. Beirak aukera asko ematen ditu: zehargarria edo koloreduna izan daiteke; birziklatu egin dezakegu eta esan daiteke edozein motatako oihal, metal edo egurrekin primeran gelditzen dela. Aldi berean, kobrea eta egurra ere indarra hartzen ari dira.



Lekuari dagokionez, jangeletan zintzilikatuta doazen lanparak dira aukera onena, argia emateaz gain dekorazioa aberastu egiten baitute. Zentzu horretan, batez ere mahaia luzea denean, lanpara deigarriak azpimarratuko geni-

tuzke. Horretaz gain, espazio berean giro desberdinak lortu nahi baditugu argiztapen-mota desberdinak nahastearen alde egin dezakegu; zintzilikatutakoak, enpotratuak eta spots dirigituak dira aukera onenak.

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

Bidebarrieta, 28 - behea Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 669 531 358
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com



ARROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA
KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA



F. PASCUAL

ARROZTEGIA - EBANISTERIA
SUKALDE ALTZARIETAN ESPEZIALIZATUAK

Arane, 6
EIBAR
943 20 61 64
943 17 19 73



ARMAIRU ENPOTRATUAK

- Zur mota guztietan
- Zure dekoraziora egokitutako soluzioak

SUKALDE ALTZARIAK

- Fabrikatzaileak gara
- 30 urtetik gorako esperientzia

www.cocinaspascual.com



Zubiaurre, 36-38
ERMUA
943 17 68 28



VIRGINIA
PASCUAL

mokka

ERREFORMAK
DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
SUKALDEAK
BAINUAK
ALTZARIAK

Nagore Goikoetxea
INTERIORISTA
KOLEGIATU ZKIA: 580BI

Bidebarrieta 24, behea
943 530637

mokkainteriorismoa.com

jardiñeta, 14 eibar / tf. 656756485 / www. estudio1964.com



1964
ESTUDIO

proiektuak | obrak | interiorismoa | vintage

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.

JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua



Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxe: 943 20 77 34 jorgevega.eibar@gmail.com

Kuxinak: ikutu berezia

Gure etxerako kuxinak aukeratu nahi dituzu baina ez dakizu nola? Zuzen aukeratuz gero, ikutu berezia ematen diote zure etxeari. Estilo, kolore, tamaina eta estanpatu desberdinekoak aurki daitezke.

Besaulkiak edo sofak askoz hobeto geldituko dira kuxin egokiak aukeratzaren baditugu. Dena dela, ez da komeni gehiegi jartzea, modu errazean eseri ahal izatea eta deskantsatzea ezinbestekoa da-eta.

Textura

Paretak lisoak baldin badira, oso ondo geldituko dira estanpatuak dituzten kuxinak. Aldiz, paretak texturak baldin badituzte, hobe estanpaturik gabeko kuxinak jartzea.

Kolorea

Bi aukera ditugu: konbinatzea edo kontrastatzea. Helburua konbinatzea baldin bada, sofa, kurtina, alfombra edo paretaren kolore konplementarioak aukeratu behar ditugu. Kontrastea lortu nahi izanez gero, ondo aztertu beharko



ditugu inguruan ditugun koloreak eta tonu guztiz desberdineko kuxinak aukeratu ditugu.



Estiloa

Kuxinak egongelan dauden altzarien araberakoak izango dira. Esate baterako, dekorazioa minimalista baldin bada, estilo horretako kuxinak aukeratu ditugu. Dekorazioa eklektikoagoa baldin bada, gehiago arriskatu dezakegu.

Tamaina

Besaulkiaren bizkaraldea neurtzea komeni da, kuxinen altuerak ezin baitu baseaulkiarena gainditu. Tamaina edozein izanda ere, ez ahaztu sofa eta besaulkien funtzioa atsedenaldian laguntzea dela.



Txonta, 30 - 1.a eta behea
Tel. 943 12 13 67
Faxa. 943 12 01 50
www.ulmar.net
info@ulmar.net

ERAKUSKETA:

Urkizu, 26 (EIBAR)
Tel 943 12 74 01

Eraikuntza metalikoak
Aluminiozko eta PVCko Aroztegia



IFAR
sukaldeak

Vegasa MUEBLES DE COCINA Y BANO **FORMA** COCINAS

banatzailea

Ifar kale, 6 - behea

Tel./Faxa: **943 206 339**

info@ifarsukaldeak.com

www.ifarsukaldeak.com





ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK

ERREFORMAK



LOKALAK

ETXEBIZITZAK

Arragueta, 12 EIBAR
Tel. 943 20 06 98

ELGOIBAR Errosario, 15
Tel. 943 74 40 19

ERREFORMAK DEKORAZIOA PROIEKTUAK ALTZARIAK OPARIAK

MAMACAS



Ego-Gain, 4 tel. 943 12 13 86 mamacas@euskalnet.net

www.irazabal.net



irazabal

Jose Maria Irazabal, S.L.

Azitain Industrialdea, 3 - H 943 120108

KONFIANTZAZko enpresa
KALITATEZko lanak
bezeroarekiko **ARRETAZ** eginda



Eraikuntza

Erreformak

Igeltseritza



IGELTSERITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA



Zure ingurunea (etxea, bulegoa,
tailerra...) aldatu nahi baduzu,
GUK LAGUNDUKO DIZUGU... gustorago
bizitzen eta etorkizun hobez gozaten.

IRAZABAL-EKIN ELKARLANEAN JARDUNEZ
GERO, HARRO ESAN AHAL IZANGO DUZU:

“Hau da nik nahi nuena”

Zure egongela dekoratzeko ideiak



egongelaren dekorazioa aldatu nahi baduzu, zure poltsikoa zulatuko ez duten aholku batzuk prestatu ditugu:

Loreak

Loreek ikutu natural eta ederra emango diote egongelari. Ez daukazu astero-astero lorak erosteko dirua gastatu beharrik. Nahi izanez gero, plastikozkoak erabil ditzakezu.

Liburuak

Liburuak eta aldizkariak egongelak dekoratzeko osagarri onak dirak. Atera apaletatik gustokoen dituzun liburuak, jarri bata bestaren gainean, dorren bat eginez, eta, dekorazio gisa, mahai txiki batean jar itzazu. Egongelako erdiko mahai argazki liburu bat edota aldizkari bat jar dezakezu; erlajatzeko dituzun uneetan ondo etorriko zaizkizu. Bisitak baldin badituzu ere gustora begiratuko dituzte. Liburuz betetako etxea beti izaten da atsegina. Zure apalak tomo berrieekin bete nahi badituzu, bigarren eskuko dendak bisita ditzakezu.



Kolorez bete

Tapete edo alfombra baten bidez egongela kolorez bete dezakezu. Espazioak kolore neutroak baldin baditu, forma geometrikoak eta kolore brillodunak dituen tapete bat jar daiteke. Horrela, egongelan bizitasuna lortuko duzu.

Ispiluak

Ispiluak ezin hobekak dira espazio bat handiagoa sentiarazteko. Paretean

leihoaren pare-parean ispilu bat jartzen baldin badugu, bista isladatuko du eta toki zabalagoaren itxura hartuko du. Horma osoa estaliko duen ispilua aukeratzeko baduzu, hobe egongelan gauza gutxi jartzen baldin baduzu. Diru gutxi gastatzeko, markorik gabeko ispilua erosi eta ondoren zuzen sortu dezakezu markoa. Nahi duzun kolorearekin margotu dezakezu; beste aukera bat detaileekin estaltzea da: esate baterako, txanponekin.

nuvan
PROIEKTU ETA ALTZARIAK

*Nuvan-ek,
SANTOS sukalde denda
ireki du Eibarren.*

SANTOS
SUKALDEAK

C/ Egogain 1, Bajo, 20600, Eibar
T: 943 03 36 72
nuvaninfo@nuvan.es
www.santos.es

D
desvan

ERREFORMAK
DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
SUKALDEAK
KOMUNAK
ALTZARIAK

San Agustin nº2, 943203762
desvanelbar@gmail.com

EKAIN

APALATEGI AUZOA, 2

Munduko KOLOREA



Tel. 943 821 325
Faxa. 943 821 326
ekain@ekain2000.com
www.pinturasekain.com

Pintura eta Dekorazioa
GRUPORRALMM, S.L.

-  **PINTURA**
-  **ZORUAK**
-  **PAPER PINTATUAK**
-  **ALFONBRAK**
-  **IZARAK ETA EDREDOIAK**
-  **BURDINDEGIA**



PS XXI BARNE DISEINURAKO ESTUDIOA

4777/135 kolegiatu zkia.



BERRIKUNTZAK

OBRAK ETXEBIZITZA
ETA LOKALETAN

AKTIBITATEEN
LEGEZTAPENAK

*Ziurtatu
profesional
titulatua eta
kolegiatuaren
zerbitzuak
dituzula*

Pedro Miguel de Urruzuno, 4 - 2. ezk. - EL GOIBAR
Tel. 943 742 306 estudiosigloxxi@outlook.es



**FATXADA
ETA TEILATUEN
BIRGAIKUNTZA
BARNE-ERREFORMAK
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**



ERAIEDER, S.L.

Tiburzio Anitua, 18 - Tfnoa. 943 200 453 - info@eraieder.es - www.eraieder.es

Txiki-txikitatik ikusi ahal izan dugu Jokin Basurto eibartarra bizikleta gainean. Bihar, zapatua, 19 urte beteko ditu. Batxilergoa amaitu berri du eta, egun batzuk barru, selektibitatea egingo du. Datorren ikasturtean Armeria Eskolan "Diseinua eta Fabrikazioa" ikasteko asmoa dauka. Jokinentzat bizikleta bizitzeko modu bat da; izan ere, azkeneko urtean probak alde batera laga dituen arren, kirol hau praktikatzen jarraitzen du ahal duen guztietan. Gainera, Eibarko Txirrindulari Elkartearen burubelarri kolaboratzen hasi da.

- Noiz hasi zinen txirrindularitzan eta nola bizi duzu kirol hau?

Zortzi urterekin hasi nintzen. Nire gurasoak Euskal Bizikletan ibili dira, eta beraiek eta Jose Aranberrik bultzatu ninduten. Orain dela gutxira arte Elgoibarko Ciclos Iturriaga taldean ibili naiz. Orain, nire kabuz ibiltzen naiz. Aurten lasaiago ibili naiz pasa den urteekin konparatuta. Irtetzen naizen bakoitzean pila bat disfrutatzen dut. Askok gustatzen zait betiko lagunekin irtetzea, bera egin eta barreak botatzea. Nire adineko jendea da, Eibar, Ermua eta Soraluzekoak. Whatsapp-eko taldearen bitartez gelditzen gara, kuadrila bat bezala funtzionatzen dugu, noizbehinka afariak egiten ditugu... Baina bakarrik noanean ere, primeran pasatzen dut!, nire erritmora joaten naiz eta asko erlajatzen naiz.

- Zer da kirol honetatik gehien gustatzen zaizuna?

Niri igotzea beti gustatu zait. Gainera, txikia eta arina naize-

nez, gatzizen pilo bat jarri didate, Jokin txiki, Hormiga atómica (jajaja)... Mendateak jais-tea ere asko gustatzen zait. Piriniotara asko joatean gara eta Otxagabia eta Burni inguruko portu luzeetan primeran pasatzen dut. Lasterketa gogorrak eta luzeak gustoko ditut, adibidez, Eibarko San Juan Saria: 102 kilometrokoa da eta amaiera Unben izaten da.

- Eibarko Txirrindulari Elkartearen nolako lanak egiten dituzu?

Hemengo karrerak antolatzen laguntzeko eskatu zidaten. Hainbeste urtetan kirol honetan jardun eta gero, denetarik egiten ohituta nago: banderekin seinaleak ematen, Valenciaga Memorialean aitarekin altabozekin spiker lana egiten, hesiak jartzen... Ez dut sekula galduko bizikleta-zaletasuna eta ni edozertarako prest nago. Eibarren txirrindularitzak beti izan du kriston zaletasuna eta izena, eta hori mantendu nahi dute. Jende gaztea behar dute, eta nik oso ondo pasatzen dut eurekin, giroa oso ona izaten da.



Jokin Basurto
Etxeberria (TXIRRINDULARIA):

"Ez dut sekula galduko bizikleta zaletasuna"

CENTRO OM ZENTROA

Zezenbide, 1 - behea ezk. - EIBAR -



**REIKI
SHIKI RYOHO**

Felipe Arnaz Escudero

REIKI 1. MAILA:

OSABIDE NATURALEKO USUI SISTEMA

Ekainaren 13an eta 14an (15.30etatik 20.00etara)

Kontakturako: 627 916 746 / 943 208 324 (plaza mugatuak)



- Reiki Maisua eta terapeuta: 2.975 Kolegiatua
- Kolegiatua Fenaco 2.999-an
- Fisioterapia Laguntzailea
- Reflexologia
- Teknikoa Kiromasaje eta Osteopatian (5.644 Kol.)
- Radioestesia Terapeutikoa (Emozioen askapena)
- Hastapena Reikira: I, II eta III Mailak eta Magisteritza

Erretzeari aurre eginez

Aurreko ikasturtekoei jarraituz, gure herriak "Kerik gabeko gelak" ekimena hartu du berriro.

Ez erretzea du helburu DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzendutako programa europarrak eta, horretarako, hainbat baliabide eskaintzen ditu nerabezaroan tabakotik aldentzeko eta ahal den neurrian kontsumitzen hastea atzeratzeko. Ekimenak Osakidetzaren eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren sustapena du eta Eibarko Udalaren laguntza eta, batez ere, 12tik 14 urtera arteko ikasleekin egiten du aipatutako lana.

Gure herrian bi izan dira parte hartu duten Bigarren

Hezkuntzako ikastetxeak getan aurrezaintzeko ekimenekin aurrera eginez eta tutoreek eta ikasleek ikasturte guztian erreko ez dutela konpromisoa hartuta. Mogel Isasiko DBHko 2. mailako ikasleek eta Aldatzeko 1. eta 2. mailakoek hartu dute parte Gipuzkoako ikasleen artean urtero antolatzen den ekimenean. Zortzi gelatako 190 ikasle izan dira parte hartzen eta erretzeari aurre egiteko mezu duen kamiseta baterako logoa diseinatu dute. Debarrena eta Debagoienako ikasleek erakutsitako lanen artean, bi diseinu pasatu dira



finalera, biak ere Mogel Isasikoak. Hala ere, finalean Donostiako Antigua Luberri ikastetxeak aurkeztutakoak eraman du lehen saria.

Lehiaketan parte hartu duten gela guztiek aurkeztutako

logoa daraman diploma jaso zuten herenegun egindako ekitaldian eta, horrez gain, ikasle guztiek logo irabazle duen kamiseta bana jaso dute. Domekan da Tabakorik Gabeko Munduko Eguna.



Itzioko frantsesezko ikasleak Frantzia aldean izan ziren

Frantsesezko 54 ikasle eta hiru irakasleek Nantes eta Puy du Fou bisitatu zituzten. Puy du Fou parke tematikoa ikusteaz gain, Nanteseko katedrala, gaztelua, alde zaharra eta elefantea ikusteko aukera ere izan zuten. Ondo nekatuta, baina bidaiari ondo aprobetxatu zutelako pozik bueltatu ziren.

J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

ARABA EUSKARAZ SAN BIZENTE
EKAINAK 14 GASTEIZ - 2015



autobus



Goizko 09.30etan
IRTENDA

Arratsaldeko 19.00etan
BUELTATZEKO

10€

zerbitzua

Isasi, 31
943 207 737

Egunero 06.00-22.00

Etorri!
Zure etxian
egongo zara!!

Astelehenetik
ostegunera
PIINTXO-POTEA!

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTLINDO



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

eta faxa: 943 70 14 97

publi.resa@euskalnet.net



ZALOA OTADUY (Farmaluru): "Krema bat ematea ezin errazagoa da"

Farmaluru-eko Zaloa Otaduyk "Nola zaindu azala udan?" hitzaldia emango du datorren asteazkenean (ekainak 3), ...eta kitto! lokaletan, 19:00etatik aurrera. Eguzkiaren alde on eta txarrei buruz jardungo du, eta eguzkiak azalean eragiten dituen kalteak azaltzeaz gain, hain garrantzitsua den organoa ondo babesteko aholkuak emango ditu. Besteak beste, krema-mota desberdinei buruz hitz egingo du, eta, hitzaldira joaten direnen artean, muestrak banatzeko asmoa duela azaldu digu. Hitzaldia herriar guztientzat zabalik izango da.

- Zer azalduko diguzu datorren astean emango duzun hitzaldian?

Azala da daukagun organorik handiena. Sarritan estetikarekin lotzen dugu, baina oso inportantea da azala osasuntsu izatea. Eguzkia ezinbestekoa da bizitzeko; eguzkiak gozatu egin behar dugu, hezurrendako eta buru-osasunarendako oso garrantzitsua delako, baina, azalarentzako oso kaltegarria izan daitekeenez, zenbait gauza kontuan hartzea ezinbestekoa da. Esate baterako, jende askok ez du ulertzen eguraldia lainotuta dagoen egunetan ere eguzki-izpietatik babestu egin behar dugula; Neguan ez da hain beharrezkoa, baina udan, eguzkia zuzen-zuzenean jotzen duenean, berdin da lainotuta egotea, babestu egin behar dugu. Gainera, batzuk pentsatzen dute, erretzen ez direnez, beraien azalak ez duela kalterik izaten, baina ez da horrela: izpi ultramoreek azalaren zelulen ADN-a kaltetu egiten dute, eta minbizi mota desberdinak horren ondorioz sortzen dira.

- Umeen azala zaintzeak ezinbesteko garrantzia dauka, ezta?

Umeak zaintzea oso inportantea da: ADNan egiten den kaltea, -estetikoa zein kantzerra- %90ean eginda dago 15 urte ditugunean. Ezin zaigu ume bat erre. Uretan sartu baino 10 minutu lehenago krema eman behar diegu (uretan hirukoiztu egiten da izpien eragina), eta uretatik irtetzerakoan berriro eman behar diegu. Crema bat ematea oso erreza da. Bestalde, gure azala errepasatu egin behar dugu, hau da, lunarrak eta orbanak noizbehinka gainbegiratu egin behar ditugu. Azken finean, azaleko arazoak oso errezak dira prebenitzeko, ez da ahalegin berezirik egin behar.

- Eguzkitik babesteko dauden kremei buruz ere hitzgingo duzu...

Krema bat nola ulertu behar den azalduko dut. Filtroak zertutuko ditugu. Jakin egin behar da informazioa irakurtzen. Crema guztiak ez dira berdinak eta oso garrantzitsua da azalean zer jartzen duzun. Zeozer erosten dugunean garrantzia bat behar dugu eta krema on bat erosten jakin egin behar da.

Aitor Pena, domekan Tas Tas-en

Bartzelonan bizi den Aitor Pena bakarlari eibartarra, egunotan gure herri inguruan hainbat kontzertu ematen dabilela aprobeztatuta, Eibarren zuzenean entzuteko aukera izango da, Tas Tas-kafe antzokiak domekarako, 20.00etarako antolatuta duen emanaldian.



Udako Ikastaroetarako izen-ematea zabalik

Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen Udako Ikastarotarako izena emateko epea zabalik dago eta, urtero lez, aurten ere ikastaro eskaintza interesgarri eta zabala prestatu dute Baiona, Eibar eta Iruñerako: 34 ikastaro eta 6 jardunaldi, tartean ekainaren 6an, "XXI. mendeko inperialismoaren hausnarketa prozesu ezberdinen gakoak erreparatu" izenburuari jarraituta Markeskuan egingo dena.



Zeramika eta Dibuko eskolako erakusketa

Datorren asteko egunean, 19.00etan zabalduko dute Zeramika eta Dibuko Udako Eskoletako ikasleek ikasturteari agur esateko prestatu duten erakusketa Portalean, erakusketa aretoan. Hilaren 17ra arte martxan egongo den erakusketa ohiko ordutegian, martitzenetik domekara, 18.30etik 20.30era bisitatzeko aukera izango da.

Mintza Eguna, bihar Beran

Bihar Mintza Egunaren hamargarren edizioa hartuko dute Beran. Aurreko edizioetan egindakoaren bidetik, aurrean jaiarekin bat egitera animatzen direnentzat egun pasa ederra antolatu dute eta, betiko lez, Euskal Herri osoko mintzalagunek bat egingo dute, tartean ...eta kitto!-ren Berbetan egitasmoan parte hartzen duten hamabost bat lagunek osatutako taldea. Egitarauari goizeko 11.00etan ekingo diote, ongi etorri ekitaldiarekin. Jarraian, eguerditik aurrera, herria ezagutzeko antolatu dituzten bi ibilbide kulturalak abiatuko dira eta, horiek amaitzean, berbalagun guztiak elkartu eta kalejiran ibiliko dira, 15.00etatik aurrera herriko plazan bazkaltzen hasteko. Bazkalostean, Mintzalagun egitasmoa hainbat kideri eskerrak emateko ekitaldia egingo da eta, amaitzeko, Malerrekako Oharkabe taldekoek batutako guztiak dantzan eta kantuan ipiniko dituzte.



Rallya, Argazkilaritza Maiatzean ixteko

Domekan, Klub Deportiboko argazkilaritza batzordeak antolatuta, Argazki Rallya egingo da 09.30etatik aurrera (izen-ematea 08.30etatik 09.30etara Deporren), Klub Deportibo partetik abiatuta. Aurreko edizioetan bezala, honetan ere modalitate bitan, zuri-beltzean paperean edo digitalean koloretan parte hartzeko aukera izango da eta parte hartzeko izena ematen dutenek 14.30ak arteko tarte izango dute antolatzaileek esandako jarraibideak kontuan hartuta argazkiak egiteko.



Biraka Dantzaren "Juke Box-Zure Aukera!"

Datorren astean, ikasturteari agur esateko hiru emanaldi eskainiko dituzte Biraka Dantzakoek, Coliseo antzokian: "Juke Box-Zure Aukera!" izenburuko ikuskizuna datorren eguazten, eguen eta barixakuan ikusteko aukera izango da, 20.00etan hiru egunetan. Sarrerek hiru euro balio du.



laburrak

POESIA GAUA

Ekainak 6rako (zapaturako), poesia emanaldi berezia antolatu dute Geltoki Elkarteok. Emanaldia 21.00etan hasiko da, Ibarkuratzen: Itzamna Poesia Tailerrekoek, Andrea Uña, Isabel S. Hidalgo, Laureano Jimenez (Elias Amezaga VI. saria), Julio Gonzalez (Treceiembre II. Olerki Saria), Idoia Carramiñana ("Noches Poéticas"), Rafa Herce (Banarte Antzerki Taldea), M^a Angeles Igartua eta Adolfo Castaños (Bartzelonako León Felipe Taldea), Raquel Gomez, Coro Benito, Syndi Otero eta Agustin Sarasketa; eta Nathali Chuchon, Javier Triguero eta Mikel Inun abeslariak hartuko dute parte.

IRABAKI IKASTAROA

Defibel Debabarreneko Fibromialgia elkarteak "Irabaki berdeak, zure osasunaren aliaturik gozoena" ikastarotailerra antolatu du ekainaren 4rako (16.00etatik 19.00etara, Ermuko Lobiano jauregian). EHU-tik Biologia Zientzietan lizentziatua eta Osasun Holistikokoan "coach"-a den Aliza Otxandianok gidatuko du saioa. Sarrera libre izango da.

IKASNET Informatika
Centro Técnico en Informática - Informática Instalativa Técnica
Otaola etorbidea 5 - 20600 - Elbar

Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

"Produktu grafikoaren diseinua" ikastaroa
diruz laguntzen duen erakundea: LANBIDE
hasiera data: 2015/06/12 orduak: 300

943120156

ikasnet@ikasnet.com

Ibarkuratze, 5
943 20 37 15

sukaldeak
altzariak
koltxoia

Karlos



Esne Beltzak ekainaren 13an joko du gurean.

Sanjuanetarako egitaraua prest

Atzo aurkeztu zuten udaletxean aur-tengo San Juan jaien inguruan antolatu duten egitaraua. Jaietan bete-betean sartzeko oraindik egun batzuk falta badira ere, nahi duenak ekainaren hasieratik izango du sanjuanetarako giroaren joateko aukera, ekaineko agendan era guztietako ekitaldiak daude eta. Hilaren hasieratik herriko dantza, musika eta bestelako taldeek ikasturte amaiera dela eta prestatutako ikuskizun ugari egingo dira gurean. Eta ekainaren 12tik aurrera, asteburu bete-beteak etorriko dira bata bestearen atzetik: barixaku horretan, besteak beste, Klub Deportiboak eta Kezka Dantza Taldeak antolatuta Dantzari Eguna egingo da Untzagan, 19.30etatik aurrera; horrekin batera Ipurua Dantza Garaikide taldearen emanaldia hartuko du Coliseoak eta Ipurua kiroldegian XXVII. San Juan Igeriketa Saria jokatu dute; gauerako Gasteiz Sport elkarteak Boxeo Gaua antolatu dute, Astelena frontoian.

Ekainaren 13rako (zapaturako) egitarauak, berriz, hauek jasotzen ditu: XXXI. Extremadurako Herrialde-Elkarraldi Jardunaldia, Arraten; Jose Airas zenaren omenez Untzaga Jubilatuen Egoitzako abesbatzaren kontzertua, Coliseoan; Eibarko zezenzaleen ekimenez Canales Rivera, Julio Benitez "El Cordobes" eta Alejandro Gonzalez nobileroaren parte-hartzea izango duen zezenketa; arku-tiroa Txaltxa Zelaian, Urko Arkularien Klubak antolatuta; eta gauean, 23.00etatik aurrera Esne Beltza taldeak kontzertua emango du Untzagan. Eta ekainaren 14an, goizean Eibarko Hiria Txori kantarien XVI. txapelketa eta Sanjuanetako LXXX. Txirindularitza Sari Nagusia jokatu dituzte; eguerdian Isabel Laspiurren piano-ikasleek Coliseoan kontzertua emango dute eta Cielito Musika Bandakoek, berriz, Untzagan joko dute; eta arratsaldean Ipurua Gimnasia Erritmika taldeak erakustaldia eskainiko du Untzagan.

Juan Ortegarri saria Umore Azokan

Gure herriko Antzerki Jardunaldiak antolatzen bizitza osoa daraman Juan Ortegarri Ohorezko Saria jasotzen aurreko astean, Leioako Mendibile jauregiak hartu zuen Umore Azokan. Ortegarri aurretik ere Umore Azokan saria jasotzen, Eibarko Antzerki Jardunaldiei orain dela urte batzuk errekonozimendua egin ziotenean bera joan zelako jasotzera, baina orain Umore Azokako arduradunek Ohorezko Sariarekin bereziki berari aitortu nahi izan diote horrenbeste urtez antzerkiaren alde egindako beharra, "baita Umore Azokari betidanik eskainitako laguntza". Izan ere, gure herriko antzerkigintzan ez ezik, Euskal Herri mailako antzerkigintzaren sustatzaile garrantzitsuenetakoa da Ortega. Elche de la Sierran (Albaceten) 1943an jaioa, berrogei bat urte daramatza Eibarren, 26 urterekin Unibertsitate Laboralera klaseak emateko asmoarekin ailegatu eta gurean bizitzera geratu zen eta. Harrezgero Eibarko Antzerki Jardunaldiak antolatzeko etenbarik beharrezko dihardu eta, horrekin batera, aste honetan agurtu ditugun Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketako arduraduna izan da. Narruzko Zezen antzerki taldearen sortzailea ere bada eta, orain dela gutxira arte Sarea, Euskadiko Antzerki Sareko arte batzordean jardun du.



zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
30ean: 19.45, 22.30
31n: 20.00
1ean: 20.30

"Felices 140"

Zuzendaria: Gracia Querejeta



(2 ARETOAN)
30ean: 17.00, 19.45, 22.30
31n: 17.00, 20.00
1ean: 20.30

"La familia Bélier"

Zuzendaria: Eric Lartigau



(ANTZOKIAN)
30ean: 17.00, 19.45, 22.30
31n: 17.00, 20.00
1ean: 20.30

"Tomorrowland"


Zuzendaria: Bred Bird



(1 ARETOAN)
30ean: 17.00
31n: 17.00

"Asterix. Jainkoen Egoitza"

Zuzendaria: Alexandre Astier



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, NAROA!
Oso ondo pasau zure egunian. Patxo haundi bat danon partez.



Zorionak, URKO
Lamariano Manso, gaur urtia betetzen dozulako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARKEL,
atzo hiru urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixu guztiaren partez.



Zorionak, ELENE!,
gaur bi urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat, printzesa, etxekuen partez.



Zorionak, XABAT,
haraiñegun sei urte egin zenduaz-en-eta. Foball atezain onenari, etxekuen partez.



Zorionak, ARIANE,
gaur lau urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IZANE
Sendino Suarez, martitzenian bi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IRATI
Arizmendiarieta Martin, martitzenian 11 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa, turista, gurasuen partetik.



Zorionak, AMAIA,
atzo zazpi urte bete zenduaz-elako. Laztan haundi bat famelixu guztiaren eta, batez be, Mirenen partez.



Zorionak, MIKEL
Mondragon Urizar, haraiñegun urtetxua bete zendualako. Famelixaren eta, batez be, Naiaren partez.



Zorionak, DANEL
Garrido, haraiñegun sei urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, URKO,
domekan lau urte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, AIMAR (domekan sei urte beteko dozuz) eta ENDIKA (aurreko domekan lau egin zenduaz-en). Milla muxu famelixako guztien partez.



Zorionak!!!, MAIDER (astelehengan bi urtetxo egin zenduaz-en) eta izeko ROSA (domekan zure eguna da). Ondo-ondo pasa eta muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, UXUE eta MIKEI,
domekan zortzi urte egingo dozuez-eta. Edarto ospatuko dogu Euskal Jai egunian!!!



Zorionak, EGOITZ eta ANDRES,
zazpi urte egin dozuezen honetan. Etxeko guztien partez.



Zorionak, ENEKO,
bixar zortzi urte beteko dozuz-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, PURI, atzo urtiak egin zenduaz-en-eta. Zure seme-alaba eta billoben partez.



Zorionak, MATILDE Laskurain eta RICARDO Alvarez, atzo 60 urte egin zenduezen ezkondu ziñaziela-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, JESUS eta ARRATE, gaur ospatzen dozuez-eta zuen urrezko ezteiak. Ondo ospatu bixar famelixaren onduan.



hildakoak

- M^a Teresa Etxeberria Arana. 95 urte. 2015-IV-21.
- Maria Lopez Aza. 88 urte. 2015-V-23.
- Alberto Zabala Justel. 58 urte. 2015-V-23.
- Jesus Urizarbarrena Solozabal. 91 urte. 2015-V-24.
- Pepita Albizu Zurutuza. 102 urte. 2015-V-24.
- Sara Gomez Ruiz. 51 urte. 2015-V-25.
- Humberto Telleria Basterrika. 83 urte. 2015-V-25.
- Antonio Mallabiabarrena Garitagoitia. 82 urte. 2015-V-26.

jaiotakoak

- Nosakhare Favour Oyemina Esosa. 2015-V-15.
- Rawad Andaloussi. 2015-V-17.
- Ibai Serrano Lorenzo. 2015-V-19.
- Alaia Hernandez Saez. 2015-V-20.
- Martin Ibarbia Bilbatua. 2015-V-21.

BARIXAKUA 29

50. EUSKAL JAIA

17.00/19.00. Kalian Jolasian (5-7 urteko umeentzako jolasak). Eibarko Bizikleta Plazan.
20.00. 50. urteurrenaren musika festibala: Makala jazzfunkband, Espaloian, Hesian eta eMePebo5t. Untzagan.

BILERA

18.30. Sanjuanak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

GURE ESKU DAGO

19.00/20.00. "Erabakia ehuntzen" ekimenerako oihalak eta gainerakoen saltzea. Deporren.

ZAPATUA 30

KAFE-TERTULIA

10.00/14.00. "Feminismoaren erronka: sexualitate iraultza", Josebe Iturriozen eskutik. Andretxean.

50. EUSKAL JAIA

10.00. Artisau eta baserriarren azoka.
12.00. Herri-kirolak (harri jasotzea, soka tira, lastoa jaso, ingudea jaso eta lastoa bota) eta bertsolariak. Goiz osoan talopostua, AEKren eskutik. Egun osoan kale animazioa. Toribio Etxebarria kalean.

19.00. Ezpalak nazioarteko jaialdia. Soka-dantzak eta ingurutxoak. Lapurdiko Lekorne herriko Urtsuko xoriak taldea. Iruñeko Duguna taldea. Arabako Larrea herriko dantzariak. Bizkaiko Garai herriko dantzariak. Turkiako Ankarako Baskent Unibertsitateko dantza-taldea. Eibarko Kezka dantza taldea. Untzagan.

21.30. Kantu afaria, elkarte gastronomikoen eskutik bertako baserrietako produktuekin. Kantuak taldeka eta, ostean, erromeria Jainaga eta Narbaizarekin. Untzagako karpan.

HITZALDIA

11.30. Nestlé hitzaldiak: "Haurraren bizitzeko lehen 1.000 egunak: nutrizioaren garrantzia". Hitzaldian gosaria eta amaieran oparia emango dituzte. Izen-ematea: charlasnutricion-bebe.gan-bcn.com. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

UMEENDAKO TAILERRA

18.00. Afrikako maskara tailerra, 3-12 urte bitartekoentzat. El Corte Inglesean (aretoan).

DOMEKA 31

ARGAZKI RALLYA

08.30/09.30. Argazki rallyan (zuri-beltzean eta digitalean) parte hartzeko izena ematea, Klub Deportiboan (irteera Depor paretik).

EUSKAL JAI EGUNA

12.00. Euskal Jaiko kalejira, Urkizutik Untzagaraino.
12.30. Eibarko aspaldiko eta gaurko dantzarien dantza-emanaldia, Untzagan.
13.00/14.00. Erromeria Jainaga eta Narbaizarekin.

14.30. Herri bazkaria, Untzagako karpan.
17.00. Erromeria, Patxi eta Konpaniarekin.
19.00. Larrain-dantza, Untzaga plazan.
20.00. Larrain-dantza, Deportibo parean.

KONTZERTUA

20.00. Aitor Penak bakarlaria. Tas-Tas kafe-antzokian.

EGUAZTENA 3

HITZALDIA

19.00. "Udarako azala nola prestatu" hitzaldia, Zaloa Otaduyren eskutik. Illunabarrian programaren barruan. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuarekin).

DANBORRADA

19.00. Umeen danborradarako entsegua.
20.00. Nagusien danborradarako entsegua. Beistegi eraikinean (Bittor Sarasketa kalean).

EBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

DANTZA

20.00. "Juke Box-Zure Aukera!" Ikuskizunaren emanaldia, Biraka Dantzaren eskutik (sarrerak 3 euro balio du). Coliseo antzokian.

EGUENA 4

KALERATZEAK STOP

19.00. Plataformako bilera irekia. Portalean.

AMAÑAKO DANBORRADA

19.00. Amañako danborradarako umeen entsegua.
20.00. Nagusien entsegua. Amaña ikastetxean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

DANTZA

20.00. "Juke Box-Zure Aukera!" Ikuskizunaren emanaldia, Biraka Dantzaren eskutik (sarrerak 3 euro balio du). Coliseo antzokian.

HOROSKOPOA

ARIES

Abentura zirraragarria biziko duzu etzi. Egun lasaia izatea espero bazenuen, presta zaitez: ez duzu atsederako astirik izango.

TAURUS

Tentazio handia izango duzu itxulapikoa apurtzeko, baina izan pazientzia, hor aurreztutakoak askorako balioko dizu-eta.

GEMINI

Laguntza ekonomiko handia jasoko duzu eta aspaldian buruan zeneukan gauza bat egin ahal izango duzu. Baten bat gonbidatu!

CANCER

Eztulak lagunduko dizu aste osoan. Ez zara gaixorik egongo, baina damutuko zaizu hainbeste izotz edatea: benetan damutu ere.

LEO

Hobe duzu helburu handirik ez ipintzea, lortu ezean porru eginda geratzen zarelako. Egin aurrera, biharkoan pentsatu gabe.

VIRGO

Izotz pixkat batekin sendatuko duzu kolpea. Beste baterako, begira nondik zabiltzan! Mimoak eskatzeko aitzakia paregabea!

LIBRA

Pozez betetako egunak aurrean dituzunak. Dena alde izango duzu eta ezingo duzu gehiago eskatu. Nahi zenuena eskuetan!

SCORPIUS

Ez zara oso umore onez ibiliko, baina ingurukoak animatzen saiatuko zara. Barreren bat edo beste eragingo dizute!!

SAGITTARIUS

Gauzak non lagatzen dituzun ez duzu gogoratzen eta zoroaren pare ibiltzen zara horien bila. Beranduegi ordenatua izateko!

CAPRICORNIUS

Adostasun batera iritsiko zarete eta pozik geratu zarete alde biak. Errespetua erabiliz gero, urrun heldu zaitezkeela ikasiko duzu.

AQUARIUS

Kirola egiteko asmoa duzula zabaldu lau haizetara eta beti duzu etxean geratzeko aitzakiren bat. Ez dizu kalterik egingo!

PISCIS

Zure begiek distira berezia daukate azken egunotan eta arrazoi sendoa dago horrela izateko. Zeinen polita den maitasuna, eh?

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

- ✓ **Maiatzaren 30era arte**
ZALDIBARKO ARGAZKILARI TALDEAREN erakusketa kolektiboa. *El Corte Ingleseko ekitaldia aretoan.*
- ✓ **Maiatzaren 31ra arte**
ENRIQUE LORENZO Deporreko Argazkilaritza Taldeko kidearen argazkiak. *Topalekuan.*
LUIS ALBERTO FRANKEREN "Patagonia, mugalde australa" erakusketa. *Portalean.*
MIKEL MITXELENAREN "Jaizkibel, kolore eta formen sinfonia" erakusketa. *Portalean.*
ANDRES INDURAIN "azken I. Ojanguren Argazki Lehiaketaren ohorezko saridunaren argazki erakusketa. *Portalean.*
34. ARGIZAIOLA lehiaketa. *K. Deportiboan.*
KLUB DEPORTIBOKO Argazkilaritza Taldekoen lanak. *Ambigü eta Portalea tabernan.*
GIPUZKOAKO NAZIOARTEKO SARIA. *Untzagako Jubilatatu Etxean..*
- ✓ **Ekainaren 4tik 17ra arte**
MARGO ETA MARRAZKETA ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLETAKOEN ikasturte amaierako erakusketa. *Portalean.*

ikastaroak

- ✓ **Jabetze Eskola**
Ekainaren 13an eta 14an. Autodefentsa Feminista gazteentzat. Izen-ematea: Pegoran. Maiatzaren 29ra arte (Feminista Gazteentzat).
- ✓ **Argazki-tailerra: "Workshop: retoque y edición digital"**
Ekainaren 6an, Portalean. Informazioa: argazkilaritza@deporeibar.com

farmaziak

- ✓ **barixakua 29**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **zapateria 30**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **domeka 31**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **astelehena 1**
EGUNEZ **Golkoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **martitzena 2**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **eguztiena 3**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguna 4**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **barixakua 5**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI -2015EAN-
Elorza (J. Gisasola, 18)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 21.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 22.50etara ordu. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 22.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu eta 19.50etatik 22.30etara ordu.

EIBAR-BILBO. Lanegunak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.50etara ordu eta 07.15, 08.00, 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.40 eta 20.40. Jaiegunak: 12.00 eta 20.00. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.55etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatuak eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

EIBAR-LOIU. Egutegia: 05.50, 08.35, 11.35, 14.35, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egutegia: 06.45, 09.45, 12.45, 15.45, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

			1	9	2			7
		6						9
	2			5			3	
		4			9			3
		1				2		
8			2			4		
	9			2			6	
1							7	
3			8	7	5			

SUDOKUA

9	8	7	1	4	5	2	6	3
6	1	2	3	9	7	8	5	4
3	5	4	2	6	8	9	7	1
8	9	6	7	5	3	4	1	2
4	2	3	8	1	6	5	9	7
1	7	5	9	2	4	6	3	8
7	6	9	4	8	1	3	2	5
2	3	8	5	7	9	1	4	6
5	4	1	6	3	2	7	8	9

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua behar da alokairuan Eibarren edo Sorraluzen. Gehienez 500 euro ordaintzeko hilean. Tel. 632-337083.
- Logela hartuko nuke alokairuan Eskoriatzan. Tel. 688-820508.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 632-331554 eta 602-120839.
- Pisua alokagai Mutiola kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Tel. 617-163382.
- Pisu handia alokagai Ermua erdialdean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 500 euro hilean. Tel. 648-643715.
- Logela alokatzen da Eibarren, sukaldea eta komuna erabiltzeko eskubidearekin. Tel. 688-647244.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala traspasatzen da Isasi 19an (Mahatsondo). Tel. 686-154867.
- Garaje itxia alokagai Txomon. Prezioa adosteko. Tel. 943-207870.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Esperientziadun ekonomilaria eskaintzen da errenta aitopenak egiteko. Prezio onean. Tel. 688-856459.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziekin. Tel. 650-513412.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 9 urteko esperientzia. Tel. 606-007742.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-139915.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-722291.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-337083.
- Neska euskalduna eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da 16.00etatik 20.00etara nagusiak zaintzeko. Tel. 658-458061.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 606-641609.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-447038.
- Emakume arduratsua eskaintzen da tabernari edo sukaldari jarduteko, garbiketarako eta umeak zaintzeko. Autoarekin. Tel. 697-200086.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka eta gauzez. Tel. 633-401678.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-123667.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-817384.
- Farmazeutikan jardundako emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-331554 eta 602-120839.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-844986.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 626-946905.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientziarekin. Tel. 631-506763.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Tel. 631-832767.
- Eibarko neska eskaintzen da goizez lan egiteko. Erizaintzan laguntzaile tituluekin. Tel. 616-607121.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-417922.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 692-588534.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxean lan egiteko. Tel. 648-845558.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 678-112785. Yerling.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauzez ospitalean ere) eta etxeko garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 652-587259.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauzez ospitalean ere) eta etxeko garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 632-966192.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauzez. Tel. 615-219514.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-418130.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 631-282203.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 631-771952.
- Emakumea eskaintzen nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 679-910991.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero jarduteko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 602-309313.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 655-231059.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 727-731386.

4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da garbiketarako lanak egiteko. 4 hilabeterako (ekaina, uztaila, abuztua eta iraila). Tel. 685-701034.
- Kamarera/o behar da Eibarko kafetegia batean. Bidali curriculum-a: tre@euskalnet.net
- Neska euskalduna behar da taberna batean kamarera jarduteko asteburuetan. Bidali curriculum-a 331 postakutxatilara.
- Igeltseritza, pladur eta pintura lanetan esperientzia duen pertsona euskalduna behar da. Bidali curriculum-a, argazki eta guzti: 2014akumal@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 673-600545.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosi-ko nituzke. Tel. 688-624326.
- Emaztegai soinekoa salgai. Vintage moda. 40 tailakoa. Tel. 619-163031.
- Haurrak eramateko Deuter motxila eta erabili gabeko Philips Avent markako Baby Monitorea (beste logelan daudenean haurrak entzuteko) salgai. Tel. 626-144098.

6.2. Eman

- Katu pertsiarra oparitzen dut ezin dudalako zaindu. Tel. 619-163031.

6.3. Galdu/Aurkitu

- BQ markako mugikorra galdu nuen aurreko zapatu gauean, Jaiki eta Koskorren artean. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 658-710933.
- Haurrak tapatzeko tokilatxoa aurkitu dut Paulaner aldamean. Tel. 690-311429.

6.4. Bestelakoak

- Behar ez duzun hori gustora hartuko gure gure alaba jaioberriarendako. Tel. 688-643716.
- Erabilitako altzariak, logelak, egongelak... jasoko genituzke, guk geuk desmuntatzeko. Tel. 618-153524.
- Bizikleta bat behar dut. Tel. 618-153524.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Izen-ematea

maiatzaren 25etik ekainaren 5era

» Oñati gestio
heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none">• Administrazioa eta Finantzak• Zuzendaritza Idazkaritza• Salmenta Kudeaketa	<ul style="list-style-type: none">• Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak• Automatizazioa eta Robotika Industrial• Sareko Informatika Sistemen Administrazioa• Fabrikazio Mekanikoko Diseinua• Fabrikazio Mekanikoko Produktioaren Programazioa• Mekatronika Industrial
<p>www.mondragon.edu/ogh info.enpresagintza@mondragon.edu 943 71 80 09</p>	<p>www.mondragon.edu/gmh gmhz.mgep@mondragon.edu 943 73 97 65</p>

lanerako gertu!

20152016



KON
TENT

KONTENT!!!!

KON
TENT

ZER DA

KONTENT?

Non dago kontent?

BILATU

KONTENT?

KON
TENT

Ego-Gain, 6
El Corte Inglésko
bidean...

KON
TENT



ESLABAN eraikuntzen eraberritze proiektuetan espezializatutako enpresa da.

Soluzio pertsonalizatuak kalitate gorenarekin eta zerbitzu bermerik handienarekin eskaintzen dizugu.

- **Igogailuen instalazioa eta eraberritzea, oztopo arkitektonikoen ezabatzea...**

- **Eraikuntzen eraberritze lanak: fatxada eta estalkien zaharberitzeak.**

- **Eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko eraberritze lanak.**

B
www.NewBEE.eu

ESLABANen helburua, bezeroen behar zehatzei irtenbide egokiena ematea da, eta martxan jarritako eraberritze lan guztiak kalitate eta profesionaltasun maila handienarekin aurre egingo diogunaren bermea eskaintzea.

Otaola, 27 esk. eskuma. 3º ezkerre. ■ Apdo. 160
20600 Elbar (Gipuzkoa)

Telf.: (+34) 943 820 407 ■ Fax: (+34) 943 820 724
E-mail: info@eslaban.com

www.eslaban.com